



SEXU ETA GENERO ANIZTASUNAREN PUZLEA

MATERIAL DIDAKTIKOA



31 Berastegi, 5-5º Bilbao 48001
Tel. 944237296 - 665 73 44 28
www.aldarte.org

DATA: 2021 ABENDUA
KONTZEPTUA ETA KOORDINAZIOA: ALDARTE
ELABORAZIOA: Joseba Martinez de Guereñu,
Garazi Beramendi y Gaizka Villar.
DISEÑUA ETA ILUSTRAZIOAK: MIGUEL GREN (mi.gren.m)

LAGUNTZAILEA:



BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES



AURKIBIDEA

Sarrera	2
Sexua	6
Generoa	14
Desira	19
Ondorioak	25
Ariketak	31
Hitz bilduma	36

SARRERA

SEXU ETA GENERO ANIZTADSUNAREN PULEA



Dokumentu honek "Sexu eta genero aniztadsunaren pulea" bideoa azaltzen du modu orokor batetan. Eraberean lau dokumentu gehiago daude, bideoaren atal bakoitza azaltzend utenak, bakoitza bideo zati bati lotuta. Bideo osoa bost zatitan banatua dago: sarrera, sexua, generoa, desira sexuala eta ondorioak.



Bideo honetan sexu eta genero aniztasuna (SGA)* bizitzeko modu ezberdinak irudikatzen dira. Bideojoko baten metaforaren bitartez gizarte sexista* batetan bizi garela azaltzen da, horretarako hiru pertsonaia agertzen direlarik, SGA bizi eta sentitzeko modu ezberdinak erakusten dituztenak. Heteronormatibitatekik* at daduen nortasun eta praktika sexual ezberdinak azaltzen dituzten materialak daduen arren, ez dugu iniolako materialik nerabe eta gazteei modu pedagogiko batetan SGAREN inguruan eman daitezkeen bizipenen inguruan jarduten duenik.



Material honen bereziki LGTBI+ ikasleak SGAREN inguruan dituzten esperientziak ulertu eta hauen inguruan ahalduztzeko* erreferentzia bat izatea du helburu. Horregatik bizi daitezkeen gaizkiegonei erreferentzia egiten die eta sistema sexista baten ondorio bezala azaltzen ditu; nortasunaren garapenerako aldatutako positiboak adierazten dituen bitartean, biktima paperetik ahaldundu batetara pasaz.

Diskurtsoa puzzle bat garatzeko bideojoko baten metaforaren bitartez bideratzen da. Perspektiba konstruktibista* batetatik gure nortasuna sozializazio prozesuen bitartez nola garatzen dugun azaltzen du. Kasu honetan, eredu hegemonikoekin* egiten ditugun imitazio-prozesuetan eta horien konplexutasunean jartzen du arreta. Gure burua definitzeko erabiltzen ditugun kategoria sozialak hainbat elementuk osatzen dituzte, eta elementu horiek garrantzi desberdina dute kategoriaren existentzian (azalpen-testu bakoitzean informazio hori zehaztuko da). Horrela, pertsonaia bakoitzak erakusten digu eskaintzen zaizkien piezekin egin nahi duten modeloa imitatu dezaketela, batzuentzat prozesu erraza eta beste batzuentzat konplikatua izanik.



Era berean, modelo bakoitza pieza handiago bat da, eta besteekin gehituz SGAREN puzzlea sortzen da, hau da, gure generoa*. Pertsonaia bakoitzak nahi bezala manipulatzeko piezak, bere eskuen bidez ikusten den bezala (errealitate birtualeko joko bat balitz bezala). Jokoak sari- eta zigor-mekanismoak ditu, pertsonaia bakoitzak nola jokatu behar duen ikas dezan, piezak egokitzen ez direnean alarma-soinu baten bidez irudikatuta. Jokoa arau zurrin batzuekin hasten da, jokalarik batzuek jokatu ezin izatea eragiten dutenak (diskriminazioaren metafora), eta, horren aurrean, aurrera egin ahala, jokatzeko beste modu batzuk ahalbidetzen dituzten eguneratzeak ikusten dira (generoaren dinamismoaren metafora); hori zehatzago azaltzen da laugarren dokumentuan («ondorioak»).

Generoa bizitzeko modu desberdinak erakusten dizkiguten hiru pertsonaia aurkitzen ditugu. Pertsonaia bizkarra emanda eta genero-elementu anbiguoekin irudikatuta daude, ikusleak nahiago duenarekin identifikatzeko askatasuna izan dezan eta nahi duen generoa proiektu diezaion, estereotipoak saihestuz. Bakoitzak kolore bat du, identifikatzen laguntzen diguna: urdina, horia eta gorria.



Pertsonaia urdinak SGARi buruzko bizipen normatibo bat irudikatzen du, ezarritako kanonetara ondo moldatzen den eta esleitu dioten generoa bizitzeko eroso egiten zaion pertsona bat.




Pertsonaia horiak kanonetara moldatzen saiatzen den pertsona bat erakusten digu, baina zaila egiten zaiona, larritasunez eta beldurrez bizi duena kontu hau, eta, aldi berean, modeloa imitatzea lortzen duenean pozten dena. LGTB+ gisa bizi nahi ez duen pertsona baten prozesu batzuk islatzen ditu (armairua).

Atal honen helburua heteronormatibotasunetik kanpoko bizipenei buruzko iruditeria sortzea da, saioa dinamizatzen duen pertsonak tresna gehiago izan ditzan. Jakina, beste aukera asko daude. Nahiz eta pertsonaia urdin eta gorriaren kasuan 4 testuetan aipatzen dugun pertsona bera izan daitekeen, horiaren kasuan ikusiko dugu pertsona desberdinei buruz irakurtzen ari garela ("sexua" testuaren adibidea ez dagokio "sexu-desira" testuaren pertsona berari). Helburua ahalik eta iruditeria zabalena sortzea da, eta horretarako hainbat bizipen islatu ditugu.



Azkenik, pertsonaia gorriak ezarritako kanonetara egokitzen ez den egoera bat erakusten du, eta nahiago du esparru sexistara egokitzen ez den bizi-ibilbide bat garatu (pertsona ahaldundu bat)

Bideoan zehar ahots ezberdinak entzuten ditugu: narratzailea, pertsonaiak eta off ahotsak. Azken horiek biztanleria osoa ordezkatzeko dute, ia edozein pertsonarengandik entzuten ditugun eta batzuetan guk geuk egiten ditugun komentarioak dira. Generoarekin lotutako ondoreen bat azaltzen duten ahotsak, edo norbait bizi ditugun arau sexistak betetzen ari ez dela adierazten dutenak (irainak, irainak...). Ahots horiek entzuten diren bitartean bideoa zuri-beltzean doa, sexismoan eroso ez dauden pertsonak egoera negatiboan kokatzen dituztela nabarmentzeko (LGBTBI+, zehazki). Bestalde, pertsonaien ahotsak erraz identifika daitezkeen pertsonaiekin bat egiten duen testu bat dute. Horrelako bizipenetan gertatzen diren gogoetak eta sentimenduak dira komentario horiek, batzuek jokoaren arauak eusten diete (sexismoa) eta beste batzuek zalantzan jartzen dute. Eta bere aldetik, narratzaileak bideoan zehar azaltzen ditu jokoaren funtzionamendua, sexismoaren egitura jakin batzuk eta nola eragin diezaguketuen eta nola egokitu gaitezkeen.





SEXUA

MAILA 1


Bideo zati honetan gorpuztasuna lantzen da, zehazki, gorpuztasun sexualizatua*. Jokoaren maila honen helburua, pieza txikiagoen bidez, sexua* eredu imitatzea da, aurrerago amaierako puzzlean "sexu" pieza handia erabili ahal izateko. Pieza txikiek elementu sexualak irudikatzen dituzte: genitalak, mesntruazioa, bularrak, barrabilak, ilea, bizarra, hormonak, haurdunaldia...

Sexua kategoria biologikoa zein eraikuntza soziala da, egunerokotasunean erabiltzen duguna, beharrezko giza sailkapen gisa. Horren gainean arau-egitura oso bat eraikitzen dugu, "generoa" izeneko hurrengo dokumentuan azalduko duguna. Sexuaz ari garenean, gizakiaren gaitasun erreproduktiboaz ari gara, eta gaitasun horretan parte hartzen duten organoez, bai eta prozesu horien ondorioz ematen diren gorputz-aldaketek ere. Oso argi ditugu bereizten ditugun bi taldeetako bakoitza (emea eta arra) definitzen dituzten elementuak. Elementu batzuek berebiziko garrantzia dute, eta ezinbestekoak dira talde bateko kide izatea norbaiti onesteko; genitalez ari gara bereziki, sexu bat esleitzeko erabakigarria eta ezinbesteko elementua izanik.



Eta sexuaz maila biologikoan hitz egiten dugunean kontuan hartu beharreko elementu gehiago dauden arren (kromosomak, hormonak...), ez ditugu kontuan hartu ohi izaten. Baina eredu nahiko zehatz bat erabiltzen dugu gorputz baten irudiari dagokionez, gizon edo emakume izateko moduari dagokionez, eta normalean garapen biologikoa* eraikuntza kulturalarekin* nahasten dugu. Adibidez, gorputzek duten ilea; ile luzea eta ile gutxikoa irudikatzen dugu emakumeen gorputza (eta oso leku zehatzetan, beste batzuetan batere ez egonik, aurpegian adibidez); eta bestetik, ile motzeko eta ile askoko gizonen gorputza irudikatzen dugu (batez ere aurpegian).

Sexuen kultura-eraikuntzari buruzko adibide gehiago daude, hala nola kirolak eta gimnasioak. Kirolak eta ariketa fisikoak gorputzak modu zehatzean aldatzen dituzte, eta gimnasioetan gure gorputza eredu batetara nola egokitzen dugun argi ikusten da (muskulazioa, koipea galtzea, gorputzeko bolumena handitzea eta atal zehatzena gutxitzea...). Eta adibideekin jarrai dezakegu: dietak, jantziak, ile-mozketak, makillajea, osagarriak, depilazioa... Praktika kultural horiek guztiak hain normalizatuta ditugu oharkabean pasatzen zaizkigula; beraz, gorputzen arteko gorputz-desberdintasuna biologikoa eta herritar gehienek artean orokortua delako ustea indartzen dugu, denok emearen eta arraren eredu hegemonikoak islatzen ditugun bitartean, sexuaren ideia esentzialista indartzen dugularik, honen alde kulturala alde batera utzita.



INTERSEXUALITATEA

Bestalde, termino eskusiboki biologikoez ari garela, intersexualitatearen kontzeptua sartu nahi dugu*. Pertsona bat eme-ar terminoetan kategorizatu ezin den gorputz-baldintzari dagokio. Ezarritako parametro biologikoei jarraitzen ez dien sexu-terminoetako gorputz-garapenaren bitartez ematen da egoera hau. Hori hainbat arrazoiengatik gertatzen da, eta ez dugu testu honetan azalduko kontu konplexua baita; sexu-kromosomekin, hormona-mailekin eta genitalekin lotuta dagoela soilik jasoko dugu. Gaur egun medikuntzan garapen sexual desberdina (GSD) izena jasotzen du. LGTBI+ kolektiboaren "i" letra da, eta aktibismotik bi sexuen inposizio soziala salatzen da, bai eta sexu horietako batekin definitzeko beharra ere. Bi sexuen arteko mugak ere zalantzan jartzen dira, gorputz askok bi taldeen elementuak desberdin garatuta ditugula planteatuz (bagina, ile asko, ahots larria, hilekoa... / zakila, ile gutxi, ahots zorrotza...).

Bi sexuen (emeen/arren) zurruntasunaren eta bereizketaren ideia nagusiaren aurrean, intersexualitateak alternatiba askatzailea eskaintzen digu logika horrekin bat ez datozen gorputzentzat. Baina talde horietan sartuta ere, jende askoren ezinegona oso handia da, eredu hegemonikoa behar bezala irudikatzea zaila baita gehienentzat.



Pasarte honetan pertsonaia bakoitza eredu sexuala imitatzen saiatzen da, guztiok egiten dugun bezala. Urdinak oso erraz egiten duela ikusten dugu; horiak, berriz, zailtasun dezente ditu lortzeko, eta gorriari dagokionez ez ditu zailtasunak bakarrik, imitatzen duen pieza modeloarekiko desberdina da.

Jarraian, pertsonaia bakoitzak bere esperientzia nola bizi duen azalduko dugu:





Imajina dezagun bere gorputzarekiko autoestimu ona duen mutil bat. Nerabezaroan dago, eta gorputza nabarmen hazten ari zaio; ikaskideekin alderatuta, altuagoa ikusten du bere burua, eta muskulu-garapen handiagoarekin. Gainera bizarra ateratzen hasi zaio. Ezberdintasun hauek ez dira arraro sentitzeko bezain handiak, alderantziz, lehenago garatzen ari da eta gizon baten irudia lortzen. Bere kasuan, bere gorputz-garapenak ezin hobeto jarraitzen ditu gure kulturaren edertasun-kanonak, eta bere gorputza bere garaiko errebista edo ikono maskulino herrikoien ereduetan islatuta ikusten du. Horri bere ikaskideen komentarioak gehitzen zaizkio, garapen fisikoa egiaztatzen dutenak: «Ze indartsu zauden!», «Alkohola eorsi zuk, nagusdiagoa dirudizula», «Ea noiz ateratzeb zaidan bizarra zuri bezala»...



Imajina dezagun hilekoa ez duen nerabe bat. Gainerako kideek gorputzean aldaketak izatena ari direla dituztela ikusten du, baina berak ez. Bular txikiak ditu, ez du kurba askorik eta besteak baino altuagoa da. Beste ikaskide batzuk bezala ikusi nahiko luke bere burua, aldizkarietako modeloen antzekoagoak, begiradak erakartzen dituzten horietakoak. Bere orrazkera luze eta leuna apailatzen du, eta bere aurpegira arreta erakartzeko makillatzen da. Gainera, bularretakoak betegarriarekin erabiltzen hasten da, eta zapatila lauak erabiltzen ditu altuera gehiago ez irabazteko. Dieta berezi bat ere hasi da, gorputzak irrikatzen dituen kurbak garatuko dituelakoan. Zenbait ahaleginekin modeloaren antza izatea lortu duen, eta bere irudia ez dago hain urrun "influencers"-etatik. Badaki egindako ahaleginei esker bere inguruak mezu positiboak ematen dizkiola: "Zein polita zauden azken aldian!". Gainera, orain gehiago begiratzen diotela ikusten du, batez ere mutilek, eta horrek bere buruarekin gustora sentiarazten du, autoestimu handiagoarekin.



Kasu honetan imajina dezagun bagina duen pertsona bat, ez oso altua eta lodia. Ilea ateratzen hasi zaio aurpegian, bai goiko ezpainean, bai masailetan. Bere gorputz-autoestimua baxua da, aldizkarien modeloen antzik ez izateaz gain, ikaskide neskekiko geroz eta ezberdintasun gehiago ikusten baititu, baita mutilekiko antzekotasuna ere. Gainera, komentario eta aholkuak ematen hasi zaizkio, ederrago nola egon litekeen inguruan: "Ilea depilatuko bazenu...", "Utzi ile luzea", eta nola ulertu ez dakien beste batzuek: "Hilekoa duzu, emakume egin zara!". Arropa zabalak erabiltzen hasi da, erosoago sentitzeko, horrela bere gorputzaren irudia gutxiago nabarmentzen baita, eta oharkabean pasatzea lortzen du.

Azkenean, pertsonaia bakoitzak nola bizi duen adierazten digu, entzuten dugun pentsamendu intimo baten bidez (bakoitzari ateratzen zaion ogitartekoa), baina normalean esaten ez dena, isilpean gordetzen baitugu gure gorputza nola bizi dugun eta horrekin lotuta sentitzen dugun arrakasta edo porrota.



Amaitzeko, esan behar da emakumeen gorputzaren gaineko kontrola gizonezkoena baino handiagoa dela. Gure edertasun-kanonen arabera garatzen ez diren emakume-gorputzen gaineko zigor handia egoteaz gain, neurri handiagoan arautzen dugu zer har daitekeen emakume-gorputztzat. Adibidez, kirolean, gizonezkoen eta emakumezkoen ligak bereizten ditugu. Horiek, degradatuta egoteaz gain, hormona-kontrolak egiten zaizkie, eta emakume bat kirola hobeto egiteko gaitasuna ematen dioten ezaugarri biologikoetan gailentzen bada, tratamendu hormonal bat egitera behartu daiteke, bere jariakortasun naturala erregulatzeko, batez bestekoaren antzeko mailak izan ditzan. Ez dago horrelako planteamendurik gizonezkoen gorputzen inguruan, kasu honetan nabarmentzea onargarritzat ez ezik desiragarritzat ere jotzen baita. Gorputzak edertasun-kanonetara egokitzen dituen merkatu osoa aipatu gabe, emakumeen gorputzera gehiegi garatua, objektu sexual gisa menderatzen saiatzen dena.





GENEROA

2 MAILA

Zati hau generoari buruzkoa da*. Horri heltzeko, generorolak eta -identitateak* nola esperimentatu ditzakegun aztertzen du, hau da, nola eragiten digun, batez ere honekin lotutako betebeharrak eta mugak.

Generoa egitura kultural bat gehiago da, klase sozialak sortzen dituenak, etnia, adina, erlijioa eta abar bezala. Dinamikoa da, hau da kulturarekin batera aldatzen da historian eta geografietan. Arau ugari ditu, eta oro har, guztiok betetzen ditugu (neurri ezberdinetan), eta ez egiteak ondorioak ditu (baita betetzeak ere). Ereduaren irudikapenean bete-betean sartzen gara; gure inguruak gizon edo emakume izateko modu bat eskaintzen digu (gure genitalei zuzenean lotua), hau da, gure elementu sexualengatik bizitzeko modu bat eskaintzen zaigu, eta guk gizaki izateko modu horiek, guri dagokiguna, gure klase sozialari (emakumeari edo gizonari) emandakoa, imitatzen ditugu, eskura ditugun erreferenteei esker. Bizitza osoan zehar, izan behar dugun gizakiaren eredua sortu eta egokitzen dugu (inkontzienteki normalean), nortadunaren garapena faktore anitzeko prozesu konplexua delarik. Beste faktore batzuen artean, agerikoa da sari- eta zigor-mekanismoa, pribilegioa eta diskriminazioa bihurtzen direnak. Aurrerago ikusiko ditugu horien adibide batzuk.



Horrela, gure gorputzaren arabera komeni zaigun eredu batetara egokitzea lortu dugu, eme gisa kategorierrazak jaio garenok emakumetzat identifikatuz, eta ar gisa kategorierrazak jaio garenok gizontzat identifikatuz. Hala ere, denok ez dugu jarraitzen sexu-genero sistemari* egokitutako identitate-garapen hori, eta termino horietan definitzen diren asko ere, sexu-genero sistema bera zalantzan jartzen dute, klaseen arteko desberdintasunean eta hierarkian datzalako (gehienbat emakumeak, mugimendu feministaren bidez), zurruna izateaz gain (ez du askatasun handirik ematen norbanakoaren garapenean). Eta gizona-emakumea bi kategoria nagusietatik kanpo, generoarekin lotutako identitate desberdinak gara ditzakegu.



Hau da, pertsona asko ez dira beren gorputzari esleitutako kalse sozialarekin identifikatzen, ezta kontrakoarekin ere, eta egoera horretan identitate desberdinak sortzen dituzte, izena jaso dezaketenak (trans, marica, bollera...) edo ez (azken horiek kategoria abstraktueta jasotzen dira, anbiguotasunaren askatasuna eskaini eta sailkatu nahi ez direnak: identitate ez-bitarrak, jariakorrak, queer...).

Bideo honetan pertsonaia bakoitzak proposatutako puzzlea ebatzi behar du beste behin. Kasu honetan genero piezak elkartu behar dira irudi handia osatzeko, eta ondoren sexuaren piezarekin batzeko. Genero pieza txikiak hurrengoak izan daitezke: orrazkera, laneko lehentasunak, janzkera, harremanak, zaintza, adierazpen emozionala... azken batean, maskulino edo femenino gisa kategoriza daitekeen guztia. Eta pertsonaia gorriak berritasun bat erakusten digu, jokoaren eguneraketa, azken bideoan erakusten dena: «Ondorioak».

Jarrai dezagun irudikapen maskulinoarekin. Heldu bilakatzen ari da, eta atzean haurtzaroa gelditu da, gizarte-arauetatik kanpo bizitzeko askatasuna ematen digun bizi-tarte hori, edo arau horiek zorrotz bete behar ez izatekoa. Oraindik emakumeen esferarekin zerikusia duten gustu eta atseginak geratzen badira, ezkutatu egin behar dira, ahanzturan desagertzen utziz. Bestalde, besteekin harremanak izatea tokatzen da, eta gure pertsonaia urdinak, gizona denez, beste gizon batzuekin harremanak garatzen ditu, emakumeekin kortesiarako bidezkoa dena erlazionatuz, eurekiko desio sexualik ez badu behintzat (nahiz eta hori izan hurrengo kapituluko gaia, gizon eta emakumeen arteko harremanen gakoa bat da), non sexu-harremana izan nahiko lukeen.

Goazen, bada, konkretutasunera. Imajina dezagun 15 urteko gazte bat, maskulinoak diren arrokekin eta orrazkera egokiarekin janzten dena (une bakoitzak berea du, gaur egun, "Cani" estiloa nahiko arrunta da). Antzeko estetika duten lagun talde bat du, eta denak elkarrekin geratzen dira kirola egiteko (futbola) edo tabernetatik gauez irteteko (alkohola kontsumitzen dute, beste droga batzuez gain). Bere jarrera, oro har, ausarta eta bortitza da, lagun onaren eta etsai txarraren irudia ematen duelarik. Bere buruaz ziur dagoela erakusten du, eta, oro har, atsegina eta adiskidetsua agertzen da, gaizkiegona haserrea eta seriotasunetik adierazten duelarik. Gainerakoei transmititzen dien irudiak kezkatzen du, eta, onartzen ez badu ere, berari buruz duten iritziarekiko sentibera da. Aisialdian futbol talde batean eta bideojokoetan jokatzen du. Besteen arazoek ez dute asko kezkatzen, eta bakoitzak nahi duena egiteko askatasuna duela uste du. Aldi berean, jende "arraroaz" trufatzen da bere lagunartean, besteak beste, «marika» horietaz, baina ez jendaurrean, pentsamendu horiek zer testuingurutan erakuts ditzakeen bereizten daki.





Oraingo honetan ere gure sexu-kanonen arabera mutil gisa sailkatu daitekeen pertsona batengan pentsatuko dugu. Berak ere gizon gisa definitzen du bere burua, baina arraroa egiten zaio, bere inguruko gizonekin zenikusi gutxi duela ikusten baitu, batez ere pertsonaia urdina bezalako mutilekin alderatuz gero. Nesken konpainiaz gehiago gozatzen du, neskekin ez du itxurarik egin behar, den bezalakoa ager daiteke. Mutil gehienek ez bezala, deserosotasun handia sentitzen du haiekin, bai egiten eta esaten dituzten gauzengatik, bai beren taldeko genero-rol maskulinoak errepikatzen ez dituenean interpelatzen edo alde batera uzten dutelako. Horregatik sentitzen da deseroso eta erasotua beste mutil batzuekin adiskidetasun-klabea harremanetan jartzen denean, eta salbuespenen bat kenduta ez du harreman handiagoa sortzen mutilekin.

Pertsona eta ikaskide batzuek berari buruz hitz egiten dute, homosexuala, gaya, marikoia... dela esaten dute. Eta heutako komentario batzuk bere belarrietara iristen dira. Taldetik baztertua eta gaizki ikusia izan nahi ez duenez, ahal duen neurrian, maskulinitatearen plantak egiten ditu ahal duen eina, hain desberdina izan ez dadin. Adierazpen emozional espontaneoak ezkutatzeko, gorputzarekin keinu zabalak egitea ekiditen du adierazteko orduan, nori-nor gustatzen zaion jakiteko elkarriketak saihesten ditu... Jakitun da jende askok lotsatitzat jotzen duela, baina horrelako sailkapenak nahiago ditu "marikoia" baino, hala bat gehiago da behintzat.

Oraingo honetan, gure sexu-kanonen arabera emakume gisa sailkatu daitekeen pertsona batengan pentsa dezakegu. Berak ez du bere burua emakume* gisa definitzen, nahiago du bolleraren identitatea* edo, are gehiago, batzuetan ez du bere burua definitu nahi eta nahiago du pertsona ez-bitarraren identitatean kokatu*. Oso urrun sentitzen da ikaskide gehienengandik, egiten eta esaten dituzten gauzengatik, nola adierazten diren edo nola interpelatzen duten genero-rol femeninoak errepikatzen ez dituenean. Horregatik guztiagatik, baliteke adiskidetasun-harremanen testuinguruan erasotua sentitu izana bere bizitzan zehar, baina bere nortasunari dagokionez seguru eta lasai egoteko bidea aurkitu du. Oreka-bide bat, non aniztasuna ulertzen duen eta bera burua desberdin (anitza) gisa ulertzen duen eta den bezalakoa maiten den. Bizitzan zehar eraikitzen joan den ahalduntze*-lana, bere bidea eginez.



Badaki batzuk berari buruz hitz egiten dutela: arraroa dela, mutil bat dirudiela eta abar. Badira entzuten dituen komentarioak eta beste batzuk ez, baina taldeak sortzen dituen bazterketa-dinamikak behatzen ditu. Ez du taldetik baztertua izan nahi, izan ere garrantzitsua da berarentzat taldearen parte sentitzea, baina ez da erabat aldatuko teldeko bat gehiago izateko. Argi dauka nolakoa den eta ezerk ez inork ez duela aldarazi behar. Zaila da, baina ez da ezinezkoa bere pentsamendu, sentimendu eta beharretan tinko irautea. Bide erraza ez den ere, denborarekin positiboki baloratzen du borroka jarraitu hori.

DESIRA SEXUALA



3 MAILA

Atal honetan desira* eta praktika sexualak* jorratzen dira, zehazki korrante heteronormatiboa* eta hortik kanpoko bizipen batzuk. Aurreko atalean azaldu genuen bezala, pertsona batekin harremanetan gaudenean genero-rol eta -adierazpen jakin batzuk espero ditugu (esaterako, eskuarekin agur egitea edo musu bat ematea), heterosexuala izatea ere espero dugu baita ere. Hain da horrela haurtzarotik ("mutilen/nesken bat gustatzen zaizu?"), zein jaio aurretik ere, non harreman heterosexuala duen pertsona horren etorkizuneko irudikapen bat sortzen den. Orientazio heterosexualetik kanpo, beste pertsona batzuk desiratzeko hainbat modu daude, eta horiek desio debekatuak edo gaizki ikusiak direnez identitateak sortzen dituzte, gure kulturaz azaltzen eta kokatzen dituztenak, hala nola marikak, bollerak, homosexualak, bisexualak, asexualak...

Eredu heterosexuala egoteaz gain, eredu hori heteronormatiboa da, hau da, sexu-harremanak izateko orduan eredu bat dagoela esan nahi dugu heterosexualitatea ez ezik, beste pertsona batekin sexualki nola erlazionatu ahal eta behar garen erregulatzen duten arau multzoa hain zuzen. Arau horiek, gainera, desberdinak dira gizonentzat eta emakumeentzat. Bi generoek eskubide eta betebeharrak desberdinak dituzte, eta horiek hausteko ausardia duenari zigorrak ezartzen zaizkio. Eta tamalez, harreman-modu bortitz batzuk normalizatuta daude, eta indarkeria-zerrenda oso zabala da (fisikoa, sinbolikoa, psikologikoa, ekonomikoa...)*. Zorionez ideario erromantikoa* desegiten ari gara ein batetan, eta horrek harreman horien legitimitatea zalantzan jartzea errazten du, harreman toxikoak* bezalako kontzeptuen pean.



Eta maitasunaren eta sexu-desiraren artean dugun nahasmenak, generoarekin lotutako beste faktore sozial batzuez gain, genero bereko pertsonen arteko adiskidetasuna sortzeko eredu bat izatea eragiten du. Eredu horrek eragin handiena izan duenengan, generoen arteko adiskidetasunik ez dagoela dioen eskemak funtzionatzen du, sexu-desira genero berdinerara bideratzen bada soilik (adibidez, mutil gay bat nesken talde batean). Hori sexismoaren beste muga bat baino ez da, eta kasu honetan sexu-desiraren arabera funtzionatzen du. Ez da arraroa kontrako generoko bi pertsona ikustean bikotea direla pentsatzea (kontuan izan dezagun hemen dagoen eredu heteronormatiboa).

Bestalde, sexu "zuzen" eta "gogobetegarri" bezala ulertzen diren formak koitoarekin eta genitalen igurzketaekin lotutakoak dira, eta hortik kanpo beste modu asko geratzen dira sexu-praktikaz goatzeko. Eta harremanak izateko modu zuzenak bikotean eta modu monogamoan dira, eguneroko iruditeriatik kanpo geratzen direlarik beste harreman-modu batzuk, "lio" edo "abenturak" kategorian.



Heteronormatibitateak eredu erakargarri eta desiragarriak sortzen ditu baita ere. Sexu-erakargarritasuna, askotan, ikuspegi eboluzionistetatik azaltzen da (biziraupena eta ugalketa bultzatzen dituzten gorputz-ezaugarriak), baina kasu honetan, honen alderdi kulturala interesatzen zaigu, eraikuntza dinamiko eta aldakor gisa. Fisikoki imitatu beharreko eredu bat sortzeaz gain (gorputza, estetika...), genero-adierazpena ere jasotzen du (gizon maskulinoa / emakume femeninoa). Horrela, ez da espero soilik gizonak edo emakumeak gustatzea, eredu jakin bat baizik. Guztiok eredu horien antzekoenak diren pertsonekin sexu-harremanak izan nahi ditugula pentsatu ohi dugu, ahalik eta erakargarrienak. Azaleko patroia bat nagusitzen da sexu-harremanen inguruan, eta horrelako pertsona batekin egotea lortzen badugu ohikoa da arrakasta gisa sentitzea, eta, are gehiago, norbere burua ondo kokatzeko erabil daiteke (gizonen artean praktika ohikoagoa izanik, emakumeak erraztasunez objektu bilakatzen baitituzte, eta beste gizon batzuk beste logika batzuen pean).

Eta horri, jakina, eredu erakargarri hori barneratzea gehitzen zaio, autokontzeptuarekin alderatzen dena, hau da, geure buruari buruz dugun pertzepzioarekin. Eta zenbat eta gehiago urundu gure autokontzeptua eredu erakargarritik, orduan eta okerrera joan daiteke gure autoestimua. Ohikoak izanik eredu erakargarriak emulatzera bideratutako praktikak: gimnasioa, dietak, ile-mozketak, gorputzeko atal batzuk nabarmendu edo ilusioak sortzen dituen arropa (betegarriak; gorputzeko atal jakin batzuk markatzea, hala nola ipurdia, bularrak, muskuluak; edo ezkutatu egiten dituzte, hala nola arropa zabala), eta genero-adierazpenaren kontrola.



Azken hau erraz ulertzen da "luma" deitzen diogun horrekin. Zenbat gizon heterosexual ikusten ditugu adierazpen femenino horiekin? Eredu adierazkor bat garatzen dugun bezala, itsusi edo ez-erakargarri bihurtuko gaituen adierazpen eta irudi bat saihesten ditugu.



Beraz, ohikoa da gazteak lasai asko hitz egitea nor gustatzen zaien edo zer pertsona mota, betiere heteronormatibitatearen barruan, eta arraroagoa da sexu-orientazio homosexualetan edo ez-heteronormatiboetan elkarrizketa berberak entzutea. Eta sozializazio natural eta beharrezko honen gabeziak (besteak beste) zailtasun handiagoa sortzen du esperientzia eta identitate horiek bizitzeko.



Horrek guztiak, ezinbestean, armairua sortzen du*. LGTBI+ gisa ez identifikatzeko garatzen ditugun tresna psikosozial guztiez ari gara. Testuinguru arrotzetan, institutua izan ohi den moduan, beste erakunde sexista batzuen artean, beharrezkoa den biziraupen-estrategia bat. Zorionez, pertsona asko gai gara gure sexualitatea harrotasunez bizitzeko, nahiz eta hori inguruari lotuta egon. "Ondorioak" testuan gehiago sakontzen dugu kontzeptu horretan.



Lagunekin (mutilak) duen hizketagaitako bat neskei buruzkoa da. Zein neska mota gustatzen zaien, zein ikaskide gustatzen zaizkien eta zein ez aipatzen dute. Jakin gabe, neska erakargarri eta desiragarriaren eredu bat sortzen dute, zeinekin denek egon nahi beharko luketen, eta aldi berean egon nahiko ez luketen eredua (itsusiak, arraroak...) ere sortzen dute.

Bestalde, bere estetika eta adierazpena asko kontrolatzen du, bai bere bikotekidearentzat zein gainerakoentzat erakargarria izan dadin. Bere itxura fisikoa zaintzen du kirolaren bidez, depilatuz, orraztuz... Eta batez ere sare sozialetan dituen profilak zaintzen ditu (Instagram... bere garaian tokatzen dena: Tik Tok...), zeintzuei denbora asko eskaintzen dien. Profil horiei zuzendutako argazkiak ateratzeaz gain, "filtroak" jartzen dizkio eta desiragarrienak aukeratzen ditu (lan nekeza). Egunaren zati handi bat sare sozial horien monitorizazioan ematen du, eta asko eragiten dio jasotzen dituen feedback positiboen kantitateak (like-ak...) edo feedback horien faltak (oso pozik egotetik tristura sakoneko egoeretara pasa daiteke). Lotsagabe jokutzen du, adoretsua dela erakusten saiatzen da, gizon bat... besteek mutil batengan ikusi nahi dutena dela uste baitu. Jarrera horiek erakargarriak iruditzen zaizkion nesken aurrean daudenean sortzen ditu bereziki, une horretan gailentzen baita arreta erakartzeko.

Ez du lagun-neska askorik, eta gehienekin duen harremana ez da oso sakona. Bere bikotekidearekin izan ezik, sei hilabete daramatza neska horrekin. Oro har, lagunekin dituen harremanak mugatuta daude bere sentimenduak eta kezak partekatzeko. Baina bikotekidearekin harremanak izateko modu berri bat aurkitu du. Beste inorekin partekatzen ez dituen intimitateak kontatzen dizkio, eta harekin bizi duen xamurtasun eta maitasunaz gozatzen du. Oso berezia bihurtu da berarentzat, eta izua ematen dio berarekin irteteari utzi nahi diola pentsatzeak. Azkenaldian oso jeloskor dago, eta beste mutil batekin hitz egiten, dantzatzen... ikusten duen bakoitzean asko haserretzen da (haserrearen aurretik beldurra dago, baina emozio hori azkar kamuflatzen du amorruekin). Baina bere emozio negatiboak erakusten ez dituenek, bere barne-foruan buelta ematen saiatzen da, eta horrek ulertzeko zaila den emozio-komplexu bat sortzen dio. Horrek bere bikotekidearekin oldarkor egotea eragiten dio, eta asmo txarrak egozten dizkio eguneroko jarreretan.





Pertsona honek zalantza asko ditu bere sexualitatearen inguruan. Duela gutxi arte asexuala zela uste zuen. Ez zitzaion interesatzen bere gelako mutilik. Mutilen bat erakargarria iruditu zitzaion uneren batean, baina ez zuen sentitzen gainerako lagunek adierazten zutena partekatzen zuenik beste mutilek gogoko zuten moduari buruz. Duela gutxi, agian bisexuala dela pentsatzen hasi da, emakume batzuegan erreparatzen hasi baita. Izan ere, gizonak baino gehiago erakartzen dute emakumeek, kitzikapen sexuala du eureniko, eta masturbazioa aztertzen ari da. Nofanahi ere, ez da oso eroso sentitzen sexuarekin* (baita masturbazioan ere), eta beste pertsona batekin sexu-harremanak izan ditzakeen etorkizunak kezkatzen du (ez da eroso sentitzen ideia horrekin). Oso arraro sentitzen da, inguruan beste inork ez baitu berearen antzeko esperientziarik adierazten, badirudi mundu guztia oso eroso dagoela sexua praktikatzeko moduarekin eta beste pertsona batzuekin egin nahi dutela. Halaber, badirudi oso argi dutela emakumeak edo gizonak gustatzen zaizkien.

LGTBI+ kolektiboaren letraren batean kokatzen saiatzen ari da, baina ez du argi, sentitzen du esperientzia eta emozio kontrajarriak dituela horietako bakar batean kokatzeko. Oraingoz ez du inorekin hitz egin honi buruz, horren inguruko iritzia duen jende askoren testuak irakurtzen eta Interneten bideoak ikusten ari da. Uste du argi izan behar duela konfiantzazko norbaiti kontatzeko; izan ere, beldurra ematen dio lagunek horren inguruan izan dezaketen erreakzioak. Oraingoz, ahal duen guztia egiten du bat gehiago izateko, eta bere inguruko mutil erakargarriei buruzko elkarrizketak ematen direnean oharkabea pasatzen saiatzen da, baten bat ederra dela partekatzen ez badu behintzat.

Pertsona honek bere burua ezagutzen du eta badaki zer gustatzen zaion. Beste askok bezala heterosexualitate posible bat onartu zuen bere garaian. Berak guztiz desiratzen ez zituen gauzak eginez, taldean integratua izateko asmoz, egingo ez zituzkeen gauzak (mutil bati musu ematea, tiktokerrak, instagramerrak, ospetsu ederrak... interesatzen zaizkiola egitea, "paga" mutil eder horietako bat irtetzen den taldeko jertse bat erosten gastatzea) norbaitek heterosexualaz haratago dauden harremanetarako aukerak azaldu izan balizkio. Urteak dira bere sexualitatea aztertzen duela, baita ikaskideek oraindik beren inguruneetan modu irekian adierazi ez dutenean ere. Sexuari buruzko jakin-min eta kezka ugari ditu, eta horren ondorioz, ikaskideek "biziotsu", "guarra" eta antzeko etiketak jartzen dizkiote. Berak ez du ulertzen zergatik (edo bai), baina hala ere aurrera jarraitzen du gaiari buruzko bere ikerketa eta esperimentazioekin. Pixkanaka gauza asko ikasten ari da eta bere inguruan partekatzen saiatzen denean ez dira ondo hartzen. Adibidez, gorputz-aniztasunekin, edertasun-kanonekin, antisorgailuekin, STIen aurkako babesekin, sexu-jostailuekin, masturbazioarekin eta abarrekin zerikusia duten gauzak.

Une honetan badaki neskak gustatzen zaizkiola eta gaia pixka bat esperimentatzen ari da. Ez du arazorik aitortzeko, baina ikasgela oraindik ez da ingurune segurua, gaiari buruzko komentario edo begiradarik jaso gabe egin ahal izateko. Buruan dituen gauza guztiak partekatzen saiatzen da, zalantzak, ziurgabetasunak, etab. Eta hala egiten du, baina normalean lortzen dituen emaitzak (ikasleen eta irakasleen aldetik) ez dira berak behar dituenak. Hala eta guztiz ere, argi dauka bera den bezalakoa dela eta bere bidean aurrera egingo duela, honek mugitzen den espazioetan sortuko dituen ondorioetaz nahiko jakitun delarik. Bera prest dago gainerakoek erakusteko berak ohikoa duen eta gainerakoek oraindik ulertzen ez duten hori.





ONDORIOAK

4 MAILA


Hau da, ziurrenik, sinbolismo gehien duen atala. Orain arte sortu diren piezen bidez puzzle handia sortzeko unea da. Azken puzzleak SGaren* terminoekiko edozein pertsonaren eraikuntza adierazten du. Lortu nahi dugun irudikapena hobeto ulertzeko, hiru dimentsioko objektu bat imajinatu behar da, dorre moduko bat, zutik egoteko piezen arteko oreka behar duena.





"Kontzientziak eguneratzen" esaldiarekin hasten da. Bideojokoen eguneratzei egiten zaien keinua da, etengabe aldatzen ari baitira eta eskaera eta behar berrietara egokitzen. Horrela erakutsi nahi dugu SGA baita ere, pertsona bakoitzaren bizitzan modifikatu daitekeen zerbait bezala, aldatu nahi dugun ala ez.


Hau ez dator bat sexu-portaeren innatismoan oinarritutako ideia esentzialistekin. Pertsonaia gorriak, jokoaren hasieran zailtasun handienak izan dituenak, eskainitako ereduan sartzea lortzen ez zuelako, alternatiba bat aurkitu du, eta jokia bere egoerara eguneratzea erabaki du, modeloa alde batera utzita. Horrela, espero zitekeena ez bezalako eraikuntza bat sortu du, bere beharreta moldatzen dena, alderantziz egin beharrean.



Jarraian, puzzle bakoitza nola geratu den azaltzen zaigu:



Pertsonaia urdinarena modeloaren berdina da. Ezin hobeto betetzen ditu gure kulturaren kanon sexistak, eta ondo egokituta dago. Hala ere, eraikuntza kolokan dagoela ikusten dugu; izan ere, erakutsi nahi izan dugu irudikapen horrek eguneroko ahalegina eskatzen duela, eta beti zuzendu behar ditugula gure jarrerak eta estetika ereduaren antza izateko. Asko izan daitezke eredia kolokan jarri dezaketen elementuak, hala nola: fisikoak (burusoila, menopausia, gorputzeko ilea aldatzea, sabela, barizak...), genero elementuak (aitatasuna, amatasuna, femeninoagoa edo maskulinoagoa izatea eskatzen duten testuinguruak edo testuinguru askeagoak...), bai eta sexu-desioak ere (sexualki erakartzen gaituzten pertsonak aldatu egiten dira gure bizitzan zehar, baita sexua praktikatzeko nahi dugun modua ere).





Pertsonaia horiari dagokionez, bere puzzlea behera etortzeaz dagoela ikusten dugu. Gainerakoek gizon edo emakume bat gehiago bezala ikustea lortzen duen pertsona da, baina ahalegin ikaragarria kostatzen zaio. Armairua* asko erabiltzen duen pertsona batez ari gara, baina jada egoera hau eutsi ezin duena, gainerako gizon edo emakumeak bezalakoa izateko itxurak egiteari uzteko beharra duena. Bere piezak asko mugitzen dira, bere generoa eraikitze modua ez baita ondo egokitzen eskaera sexistetara. Egoera horrek sortzen dion ondorearen aurrean, bi aukera ditu: orain arte bezala jarraitzea, sufrimendua aintzen saiatuz, edo hainbeste itxura egiteari uztea eta bere beharretara egokitzen den genero bat eraikitzea (pertsonaia gorriaren kasuan bezala).





Pertsonaia gorriak, bizi izan duenari eta aurkitu duen alternatibari esker, bere beharretara eta bere baitara egokitzen den puzzle bat eraikitzeko gai izan da. Gainerakoena bezala, bere puzzlea ere aldatuz joango da denboran zehar, eta desberdintasuna da eraiki eta deseraiki* dezakeela nahi edo ahal duen moduan, berak bete nahi ez dituen beste eskaera edo izakera batzuetara egokitu beharrik izan gabe. Ez da bide erraza, izan ere, gure gizarteak ezarritako zuloz beteta dago; hala ere, badaki bizi izan duen eta bizitzen ari den horrek guztiak alde positiboa duela eta lasaitasunez bizi du.



Esan berri dugun hau pertsonaien arteko ezberdintasunik handiena da. SGA bizitzeko modu desberdinak islatzen dituzte. Ideia da, eredu bat irudikatzeko proposamenean, pertsona batzuek naturaltasun handiz eta erraz egiten dutela, beste batzuei izugarri kostatzen zaizkien bitartean, ondorio oso negatiboekin, eta beste batzuek, aldiz, egonezin horietatik askatzen dituzten ibilbide alternatiboak egiten dituztela. Jakina, denok aurki gaitzke gure bizitzako une desberdinetan hiru pertsonaietako bat gorpuzten. Izan ere, lehen aipatu ditugun armairu* prozesuak testuinguruaren arabera erabiltzen ditugu denok, hau da, gizon eta emakume gisa agertzen saiatzen gara gure kultura-kanonen arabera (adibidez, jarrera matxistak garatzen dituen gizon homosexual bat, konpentsazio-ahalegin batetan).

Eta horrela, nola ez ditugu garatuko dagozkigun emakumeen eta gizonen rola? Askorentzat biderik erosoena gizon-emakume ereduaren imitazioa da. Sexismoaren indarra itzela da, baina zorionez badira nortasun osasuntsuak garatzeko moduak, SGAREN puzzle konplexu honetan gertatzen diren indarkeria eta diskriminazio propioei ihes egiten dietenak (ahal den neurrian). Eta zentzu horretan, heteronormatibitate kanpoko ibilbide positiboen iruditeriak eskaintzen saiatu gara, batez ere pertsonaia gorriaren bitartez, zeinek modu ahalbundu batetan generoa eta sexualitatea eredu hegemonikotik kanpo bizitzeko modu bat erakusten digun. Indarkeria sexista asko biktimaren roletik bizi ez dituen identitate bat, hauek gainditu egin baititu.





SARRERA

SEXU ETA GENERO ANIZTADSUNAREN PULEA

Proposatzen diren galdera eta ariketak bideoan agertzen diren gaiak lantzeko proposamen bat dira. Irakasleak izango duen gidoi bat kontu hauen inguruan gogoeta kolektiboa eta banakoa egiteko. Hori dela eta, hezitzailearen eskura egongo da taldeak egitea, dinamika indibidualak proposatzea, eta talde osoaren artean eztabaidak sustatzea.

SEXUA



Kategoria objektiboa edo eraketa kulturala?

- Ze elementu dira beharrezkoak arra izateko? Eta emea?
- Ar edo eme kategoriak galdu ditzakegu? Describe estéticamente tu hombre o mujer ideal.



Deskribatu zure gizon edo emakume ideala estetikoki.

- Horrelako gorputz bat izan nahiko zenuke?
- Izango duzula uste duzu?
- Izaten saiatzen ari zara? Nola? Zer egiten duzu zure gorputzak nahi duzun itxura izan dezan?
- Zelan sentitzen zara ideal horrekin konparatzen duzunean zure burua? Eta zure inguruko lagun eta ikaskideekin?
- Ondo edo gaizki sentiarazten zaitu zure gorputza ikustea? Atalen bat bereziki?



Zure gorputza erabiltzen duzu etekinak lortzeko?

- Ligatu
- Lagunak izan
- Mirestua izan



Noraino uste duzu zure gorputza modifikatzeko eta estetika konkretu bat izateko egiten dituzun esfortzuak besteek zu onartu eta desiatzea dutela helburu? Noraino uste duzu zure autoestimua zure fisikoagatik baldintzatua dagoela?



Instagram, Tik-Tok edota beste sare sozialik erabiltzen duzu arlo honetan?

- Zure gorputzaren irudiak konpartituz? Beste batzuenak aztertuz?...
- Zenbat denbora ematen duzu irudi edo bideo bat publikatzeko?
- Nola eragiten dizute erantzunek (like, erantzun eza...)



Zerk egiten du zu inseguru sentitzea kontu hauekin?



Zerk egiten du zu ahaldundua eta seguru sentitzea kontu hauekin?



GENEROA



Ze ezberdintasun dago sexu eta generoaren artean?



Kategoria objektiboa edo eraketa kulturala?

- Ze elementu dira beharrezkoak gizona izateko? Eta emakumea izateko?
- Bizitzan zehar gizon edo emakume kategoriak galdu ditzakegu? Nola?
- Eta nola lortzen ditugu? (Nork eman dizu? Zer egiten duzu hauek sendotzeko, egia bilakatzeko?)



Ze betebehar dituzu gizon edo emakume bezala? Eta ze muga? Beste taldearekin konparatu (gizon/emakume).

- Bada emakume eta gizon kategorietatik at bizitzeko aukera?
- Ze identitate ezagutzen dituzu (emakume-gizon binomiotik aparte)? Non ezagutu dituzu? Hausnartu duzu noizbait honen inguruan?



Noizbait diskriminatua izan zara genero kontuei dagokionez? Nola?



Generoaren arloari dagokionez biolentzia eragin dezakezula uste duzu? Ze jarrera sexita dituzu zeureganatuta? Eta zure inguruan?

- Deskribatu azkeengo astean bizi dituzun 5 egoera sexista.



Beste egoera batzuekin konparatuz, uste duzu hainbat pribilegio bizi ditzazkezula genero kontuei dagokionez?



Zure inguruko gizonak/emakumeak bezala ikusten duzu zure burua? Taldetik kanpo sentitu zara inoiz feminitate/maskunlinitate rolei dagokionez? Zer egiten duzu taldekide izateko?


- Zer gustatzen zaizu feminitatetik/maskulinitatetik? Zer ez?



Ahalko bazenu zerbait aldatuko zenuke gure sexu-genero sistematik? Alu batekin jaio partez, zakil batekin jaio izan bazina (edo alderantziz)



zure bizitza ezberdina izango litzatekeela uste duzu? Zer aldatuko litzateke? Zergatik?



DESIRA SEXUALA



Nolako pertsonak dituzu gustoko? Haukera ezberdinak eman: neskak, mutilak, biak, ez bata ez bestea, ez dut erantzun nahi...



Ariketa: Taldeka genero bat gustuko dituzten pertsonak bildu, neskak gustuko dituzten mutilak adibidez, eta ideal hori (neskak) deskribatzeko eskatu. Ondoren, talde horrek (neskak) eurak (mutilak) desiragarri nola ikusten dituzten deskribatzeko eskatu, hau da, neska heterosexualentzat mutil erakargarri ideala zein izango litzatekeen pentsatu. Ondoren taldeen artean hitz egindakoa kontrastatu eta errealitatearekin konparatu.



Ze harreman mota desiratzen dituzu? Monogamoak, poliamoroasoak...



Filia edo fetitxerik duzu? Porno klasikoaren kontsumoa oso handia da. Noraino uste duzu balditzantzen dituela zure filiak edo fetitxeak?



Zer egiten duzu erakargarria izateko? Zer ekiditen duzu egitea edo adieraztea ez zaitezen "itsusia" edo ez-erakargarria bilakatu? Genero adierazpen ez-normatiboetan zentratu azken galdera hau.




Ze sare sozial eta app erabiltzen dituzu ligatzeko? Nola eragiten dizute erreakzioek?



Nola eragin daiteke biolentzia harreman sexu-afektiboetan?



Zertarako ditugu joera sexuala definitzen dituzten hainbeste kategoria? Badu zentzurik? Zein?



ONDORIOAK



Zein pertsonaiarekin identifikatzen zara? Agian bat baino gehiagorekin?

Nola erabiltzen duzu armairua?

- Jabetzen al zara zure jarrera nola modifikatzen duzun genero-ikuspegitik, testuinguruaren arabera?
- Unearen arabera femenino edo maskulinoagoa izaten saiatzen zara?

Nola konpentsatzen duzu eredia bezalakoa ez izatea? Neurri handiagoan garatzen al duzu genero-elementuren bat horrela errekonozitua izateko eta zeure burua modu positiboan ikusteko?

Nola egokitzen dira zure kasuan sexuaren, generoaren eta sexu-desiraren piezak? Egokitzen badira.

Makineria guzti honekin, nola ez ditugu garatuko dagozkigun generoak?

Besteen gustukoa izateko, gure eskubide eta pribilegioez gozatzeko eta zigorrik ez jasateko bidea den bitartean, ereduaren erreproduktzioa da biderik erosoena eta funtzionalena. Baina zer gertatzen da sufrimendua eragiten digunean? Zuk nola daramazu duzu sexu-genero sistema erreproduzitu behar izatea?

Jarduera: sortu ezazu metafora bat sexu- eta genero-aniztasuna azaltzeko eta zure hitzekin sexismoarekin nola erlazionatzen den azaltzeko.



HITZ BILDUMA

Ahalduntzea

Prozesu psikosozial honen bidez, pertsona batek diskriminazio-esperientziak biktima-roletik bizitzetik indarkeriei aurre egiteko gai den egoera batera igarotzen da.

Armairua

Desio ez-heteronormatiboak, genero-adierazpen ez-normatiboak eta identitate desberdinak ezkutatzeko prozesua. Gainerakoek logika bitar eta heterosexistaren barneko gizon edo emakume gisa ikustea da helburua.

Binarismoa

Gizakia ulertzeko modu bat zeinetan honek bi sexuetatik bat izan dezakeen eta genero bat honekiko lotua.

Binder

Bularrak konprimatzeko erabiltzen den elementua, bularrak nabaritu ez daitezen.

Bollera

Sexu-desira ez-heteronormatiboa definitzen duen genero-identitatea. Horrez gain beren identitatean ez dira emakumeen genero-adierazpenak soilik sartzen. Emakume identitatearekiko alaternatiba bat da, eta egitura sexistak aztertu eta salatzen ditu, gorputz femeninoei esperientzia askeagoa eskainiz.

Deseraikuntza

Prozesu psikosoziala; horren bidez, kontzeptu bati lotutako esanahia eraldatzen da, eta kontzeptua bera desegin eta beste batekin ordezkatu daiteke, errealitatearen irudikapena birsortuz. Errealitate horrekin modu berri batean erlazionatu ahal izatea ahalbideetzen du, horri lotutako emozioak ere aldatzeko hauek sortuz.

DSG

Sexu- eta genero-aniztasuna. Generoarekin lotutako identitatea garatzeko hamaika modu daude, baita gure desira eta praktika sexualak ere. Forma batzuk hegemonikoak dira eta pribilegioak dituzte; beste batzuek, berriz, diskriminazioa jasaten dute eta zapalduta daude. Generoan egoteko eta ulertzeko askotariko erak daude: Genero arina, genero sortzailea, etab. Aniztasun honek, genero bitararren ideiarekin, hau da, bi genero (gizona, emakumea) daudela, non bakarrik bi sexu eta soilik bi sexu (arra, emea) daudenaren oinarritutako ideiarekin apurtzea dakar. Generoa, hots, era ez bitarrean ulertu behar da.

Eredu hegemonikoak

Gizonen eta emakumeen generoak erreproduzitzeko ohiko moduak. Esparru heteronormatiboaren barruan.

Garapen biologikoa

Gorputzaren garapenari dagokio, kasu honetan elementu sexualei.

Generoa

Genero ez da sexua kontzeptua bezalakoa, baina bi kontzeptua hauek era trukagarrian erabiltzen dira batzuetan. Generoa zerbait kulturala bezala ulertzen da eta sexua biologikotzat hartzen dugu. Nahiz eta jende guztia gorputz jakin batekin jaio, non gehiengo kulturala sexua deritzon, inor ez, ez da jaio neska edo mutila, emakume edo gizona bezala. Batez ere jaiotzen garenean genero bat esleitzen digute eta denborarekin eta prozesu konplexu baten ostean genero horrekin bat egiten dugu, hau da, genero horrekin identifikatzen gara (edo EZ). Gure mendebaldeko kulturean, generoa, gorputzak bi jende kategorietan, emakume eta gizona bezala, antolatzeak era dugu. Bi kategoria hauek, diskriminazio sendo batera daramana, emakumeak gizonezkoekin alderatuta, gutxiutuak dira. Generoaren esanahia testuinguru historikoaren, kulturalaren, politikaren eta kokapenaren... arabera eraldatzen doan kontzeptua dugu, gertagarria dena (faktore desberdin ugarien eta loturarik gabeko, aparteko eta ezohiko bat egite baten mende dagoena).

Genero-adierazpena

Genero adierazteko hainbat modu daude; besteak beste, emakume maskulinoa edo gizonen femeniinoa izatea. Aniztasun horrek genero bitarraren ideia apurtzea dakar; hau da, arrak diren gizonen soilik izan dezaketela adierazpen maskulinoa eta emeak diren emakumeek femeniinoa. Adierazpenak modu ez binarioan eta zabalean ulertu behar dira.

Genero jariakorra

Genero identitate mota bat da. Pertsonak bere bizitzan zehar identitate-kategoria batekin baino gehiagorekin identifikatzen dela esan nahi du. Nortasuna testuinguruaren mende dago, eta pertsonaren beharren arabera aldatu egiten da.

Genero nortasuna

Gizona eta emakumea edo beste genero batzuk izatearen parean sentitzen garenari buruz adieraztera diogu. Emakumeak, gizonak, biak edo bat ere ez izatearen sailkapen gertaera honekin antzematen garen, hau da, bat egiten dugun gure buruari galdetuko genioke.

Gorputzasun sexualizatua

Esan nahi du gure gorputzeko atal jakin batzuk esanahi sexualizatuak direla.

Harreman toxikoak

Harreman erromantiko edo afektiboetan (adiskidetasun- eta familia-harremanetan ere erabiltzen dira) gerta daitezkeen indarkeriazko dinamikak definitzen ditu. Batzuetan eufemismo gisa erabiltzen dira tratatu txarren edo indarkerien harremanez hitz egitea saihesteko. Horrek esan nahi du berdintasuna dagoela harremanaren barruko indarkeria-mailetan, eta ez, ordea, tratatu txarren harremanetan, horietan hierarkia baitago.

Heteronormatibitatea

Gure kultura, sexualitatea eta generoa bidez arautu eta normaldu egiten diren botere harreman multzoari buruz ariren den ikuspegi ideologikoa. Ez da soilik homosexualitatearen kontra eragiten duen aurreiritzia, baita ere, arrazaren, klasearen edo praktika sexualen kontuak eragiten du, ditu. Era honetan, idealizatutako harreman heterosexualak (bikotearekin, seme-alabekin, maitasunagatik...) instituzionalizatzen dira. Egitura sozialak, zuzenbidezkoak, kulturalak eta ekonomikoak urratu egiten dituenak. Zeinen, pertsonak sexualitate edo genero ez arauemaileen bidez, baztertzen, zigortzen eta bereizten dituenak.

Heterosexismoa

Heterosexualitatea eta pertsona heterosexualak beste sexualitate batzuen gainetik daudela onartzen den diskriminazioan oinarritzen da. Heterosexismo hau, legeetan, kultura eta politikan dago.

Identitate ez-bitarra

Genero-identitate mota bat da. Pertsona ez da definitzen gizon/emakume nortasun hegemonikoekin. Edo agian biak identifikatzen da. Categoria ambigua da, eta aukera ematen du bi kategorietako batera mugatu beharrik ez izateko, genero-arauen artean ibiltzeko askatasuna ematen baitu.

Intersexuala

Jaiotzerakoan sexu bitarra zailtasun jartzen duten pertsonak. Sexu-organo maskulino eta femeniino ambiguoekin (femenino bezala edo maskulino bezala kategorizatze erraza ez direnak) jaiotzen diren pertsonak, sarritan, jaiotzen direnean medikuak dira sexu bat esleitzen dietena. Bere sexu-organoekin edota generoarekin bat egiteko arazoak esperimendu ditzakete.

Konstruktibismoa

Errealitatea prozesu kognitibo indibidual eta kolektiboetan oinarrituta ulertzen dugula proposatzen duen teoria akademikoa. Ez gara errealitatearekin zuzenean erlazionatzen, errealitatea ulertzeko sortzen ditugun irudikapenen bidez baizik. Hori, besteak beste, tresna kulturalak esker lortzen da, eta horrek eragiten du desberdintasun kulturalak gure bizitzak ulertzeko modu desberdinak inplikatzeko.

Konstrukzio kulturala

Kultura-elementua da errealitatea kategorizatze prozesuaren arduradunetako bat. Aurreko kontzeptuan xehetasun handiagoz azaltzen da.

Marika

Sexu-desira ez-heteronormatiboa definitzen duen genero-identitatea. Horrez gain beren identitatean ez dira gizon genero-adierazpenak soilik sartzen. Gizon identitatearekiko alatematiba bat da, eta egitura sexistak aztertu eta salatzen ditu, gorputz maskulinoei esperientzia askeagoa eskainiz.

Praktika sexualak

Plazera helburu duen sexu-eszitazioarekin zerikusia duen ekintza oro da.

Queer

80 urteen amaieran pertsona batzuek hitz hau errebindikatu zuten, aspaldiko zentzu txarreko hitza zena, era positiboan erabiltzera hasiera eman zitzaien. Jendarte arau heterosexistei aurkakotasunaz hitz egiteko era bilatzen zen, queer-a izatea ez da soilik orientazio sexuala, orientazio politikoa ere bada, "hetero-arau aurkakoa" deiturikoa. LGBTI+ pertsona askok erabiltzen hasten diren "maritxua", "bollera" termino bezalakoek esanahi bera dute.

Sexismoa

Gizakia emea/arra kategorietan eta horiei lotutako eskubide eta pribilegioetan oinarritutako gizakiaren inguruko ulermena. Baita genero-identitate eta -adierazpenak eta sexu-desira ere. Hierarkia-sistema bat da, non gizon heteronormatiboak eskubide gehien dituen.

Sexua

Generoaren kategorizazioa zehazteko sexu kontzeptua erabiltzen da. Mendeabalean, sexua (sexu-organo, aparatuan oinarritua) era determinista eta biologikoan azaltzen dugu, hortaz, hornidura genital femenino argi eta garbiarekin jaiotzen bada, emakume generoa esleituko da, eta hornidura maskulino argi eta garbiarekin jaiotzen bada gizon generoa esleitzen da. Argi eta garbi geratzen ari da egoera hau kale egiten ari dela, batez ere egoeraren errealtateak, gorputz fisikoak konplexuak eta sarritan ez bitarrak direla dio. kategoria sozialak hain argi eta garbi ezin dira mantendu bi ezaugarri hauetan arazoak sortu gabe. Beraz, sexua, (generoa bezala) jendarte eraikuntza bezala ulertu behar da. Sexua generoarekin lotzeko era determinista batean egindako saiakera guztiak, maila batean beti kale egiten dute. Ezarriko dugun edozein harreman, testuinguruko alderdia, alderdi kulturala, historikoa eta politikoa izango du. Finkatuko dena, baieztatuko dena eta birbaieztatu beharko dena etengabe, egiazkoa izaten jarraitu dadin.

Sexu-genero sistema

Sexismoan oinarritutako sistema, gorputz bati sexu bat eta dagokion identitate bat esleitzen dizkiona. Ar-gizon / eme-emakume patroia jarraitzen du.

Trans

Jaiotzean esleitutako generoa zalantzan jarri duten pertsonak. Operatu diren pertsonak edo ez, tratamendu hormonalak hartzen dutenak edo ez, aurkako generoko arropak janzten dutenak, etab, barnebiltzen ditu. Beren burua esleitu dieten gizon edo emakumeez bestelako identitatearekin definitzen dute, kontrakoa edo bitarra ez den beste bat izan daitekeelarik.